

## **MUSKIZKO 21 IKASLE ESKOLAKO AGENDA 2030 PROGRAMAKO UDAL FOROAN BATU DIRA**

Maiatzaren 25ean, Muskizko 21 ikasle bildu ziren Eskolako Agenda 2030 programaren Udal Foroan parte hartzeko.

Foro horretan izan ziren Ainara Leiba alkatea, Javier García, ingurumen zinegotzia eta Ekhiñe Ugarte enplegu planeko administraria. Ikasleek beren ikastetxeetan programarekin lotuta egin dituzten jarduerak aurkezteko aukera izan zuten.

Udal-ordezkariek ikasturtean egindako proposamen guztiei erantzun zieten eta horietako batzuk gauzatzeko dauden zailtasunak azaldu zituzten. Gainera, abian jarri diren ekintza batzuen berri eman zuten, beren eskaeretako batzuekin zerikusia dutenak.

Ikasturte honetan, udal mailan, 7. GJH-Energia irisgarria eta ez-kutsagarria aztertu dute. Horregatik, ikasleek hartutako konpromisoak eta Muskiz udalerrri jasangarria izateko udal arduradunei egin dizkieten proposamenak gai honekin lotuta egon dira.

Amaitzeko, Ainara Leiba alkateak eskertu egin zuen urtero programa honetan egiten duten ahalegina, eta datorren ikasturteko harrera ekintzari dei egin zion.

### **21 ALUMNOS Y ALUMNAS DE MUSKIZ SE HAN REUNIDO EN EL FORO MUNICIPAL DE AGENDA 2030 ESCOLAR**

*El 25 de mayo, 21 alumnos y alumnas de Muskiz se reunieron para participar en el Foro Municipal de la Agenda 2030 Escolar.*

*En este foro estuvieron presentes la alcaldesa, Ainara Leiba, Javier García, concejal de medio ambiente y Ekhiñe Ugarte, administrativa del plan de empleo. El alumnado tuvo la oportunidad de presentar las diferentes actividades que han realizado en sus centros educativos relacionadas con el programa.*

*Los representantes municipales dieron respuesta a todas las propuestas realizadas este año y explicaron las dificultades que existen para poder ejecutar algunas de ellas. Además, dieron cuenta de algunas acciones que ya se han puesto en marcha y que tienen que ver con alguna de sus peticiones.*

*Este curso, a nivel municipal han analizado el ODS 7-Energía asequible y no contaminante. Por eso, los compromisos que el alumnado ha adquirido y las propuestas que han hecho a los y las responsables municipales para que Muskiz sea un municipio sostenible están relacionadas con esos temas.*

*Para finalizar, la alcaldesa, Ainara Leiba, agradeció el esfuerzo y el empeño con el que todos los años trabajan en este programa y, los emplazó el acto de bienvenida del curso que viene.*